

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak komunikabideetako ordezkariekin topa egin du urte amaiera dela eta

Urte "sendoa" amaitzen ari dela nabarmendu du eta datorrenari pozez ekiteko gonbita luzatu du

Asteazkena, 2018.eko abenduak 26

Nafarroako

Lehendakariak, Uxue Barkosek, Nafarroako Gobernuko informazioaren berri jasotzen duten hedabideetako kazetariekin topa egin du gaur Nafarroako Jauregiko aretoan egindako ekitaldian, asteroko Gobernuaren Bilkuraren ondoren egiten den prentsa agerraldiaren ostean.



Barkos Lehendakariak topa egin du Gobernuko kontseilariekin batera.

Lehendakariak urte guztian zehar egindako lana eskertu die bertaratu direnei eta hastear den urte berriaren atarian «aurten amaitzeke dauden gauzatariko batzuk konpontzeko nahia», aipatu du. Gainera, "gomorra" izatea aurreikusten den 2019ari animoz ekiteko gonbita luzatu du.

Barkos Lehendakariarekin batera izan dira Manu Ayerdi eta Miguel Laparra lehendakariordeak, eta Mikel Aranburu, Maria José Beaumont, Ana Olló, María Solana, Isabel Elizalde eta Fernando Dominguez kontseilariak. Bertan izan da ere Komunikazio eta Herritarrekiko Harremanetarako zuzendaria, Pello Pellejero.

Gobernuak bertaratu direnei Nafarroako Gobernuak argitaratutako Celia Martín Larumberen "Imaginario. Fotofragmentos de vida. Navarra 1900-1950 / Irudiak. Bizitza argazkiak. Nafarroa 1900-1950" liburua eman die opari.